

Bela-ko zaldunaren Zuberotar hiztegia, XVIII.mendean

Ezin dezakeguesan ezer ez dakigula Zuberoako euskalki zaharraz, ez eta ez dela izan zubereroazko hiztegirik, orain aipatzera goazan hunen aurretik ez geroztik; halere hunek beregisakotasuna duelarik eta orainarte argitaragabea egon baita, osorik ematea merezi luke. Gaur, sundaketa laburra eginen diogu, hots zubereroa ta frantses zerrendak bakarrik emanaz, beste behingorako utziz enparauak, española, italianoa, hebreua, grekera, latina, arabea, kelta, alemana, alegia biltzaileak dion «euskararekin harremanetan izan diren hizkuntzak», baita beste bi zerrenda, bata Lapurdiera ta bestea Larra-mendiren gipuzkera.

Gure «mintzaje» bitxiaren hiztegi zaharrena, Leizarragaren hiztegitxo da «Cuberoaco herrian vsantçora itçuliac» *Testament Berria*-ren azkenena, 1571.urtean eman zuena, La Rochellen argiratatu liburuan. Naski, 1521.urtean agertu zen «*Coustume de Soule*» Zuberoako foruan hiztegitxo bat bil litake, lege hiztegiari buruz *Euskera*-rako egin nuen bezala, baita «*Censuel du Pais de Soule*» delakoa ikertuz urrunago joan, XIII, XIV.mendeko eskuidazkiekin .Bearnoko «*cens*» delakotik etxe ta jende izen parrasta atera nuen, «FLV»rako. XIV.mendeko euskararen, eta Zuberoako euskalkiaren lekuko.

Arlande Oihenartek XVII.mendean Sylvain Pouvreau-i bidali hitz lerroetan, zubereroazko asko badaude; garai berean Jakes Bela-k nonbait 1660-1666.urteetan bere «*Tablettes*», memoria luzeetan hiztegi bat eman omen zuen G-letraren ondotik «*Grammaire*» kronikan, baina hain zuzen bere obra nasaietik falta den tomoan zegoen; duda batekin gelditzen gara ordea ez ote zuen, hiztegi hori bere biriloba Joan Felipe Belako zalduna, orain aipatuko dugunak, berea egiteko erabili, zeren ondotik ematen dugun zerrendan ageri da, nonbaitetik aldatua izan dela, zerrenda batetik bestera nahaskeriak agertzen baitira.

Oraindano, Jakesen hiztegia galdu baldinbada, Joan Feliperena Pariseko Bibliothèque Nationale-an bi eskuidazkitan lo egon da. *Nouvelles Acquisitions Françaises* delakoetan, tomo hunen bi ale daude bata XVIII.mendekoa zaldunaren eskuz agian, 2055.zenbakiarekin, bestea XIX.mendeko kopia, 2069.gnarekin.

Grafia zen bezala eman dugu, nahiz frantsesez, nahiz euskaraz, kontutan hartuz bi hizkuntzetan esan nahiak asko aldatu direla lekuka. Zaldunak grafia asko darabiltza, irakurtzen zituenak hala-hala aldatuz. Horregatik garaiko euskal iparralde grafiaren ondoan, gaztelaniazkoa baita frantsesaren kutsuzkoa ere ikus ditezke.

Bokalen grafian da guri buruzagi, zeren zubereroaren bokal sudurotsdunak idazten baititu. Halere bere sistema ez da Egiategiren tildea bezain ona ez baitu «an» silaba ta «÷a» sudurkaria bereizten, *gincoa* ta *anharra* idazten duelarik. Halaxe «i» sudurkaria «in», «a» sudurkaria «an» idatziz entzuten

zuena aldatzera saiatu zen, baina «u» sudurkaria «öü», hala nola ostoüa, mourroüña. Zuberoeraren «u» gehienak frantses grafiaz «ou» idazten ditu, baina beharbada gaskoin grafiaren ondarez «o» batzu «u» zitezkean: *ontza/utsa, beroa/berua, Gincoa/Jinkoa* eta abar, baina «o» asko «u» bihurtu baldin badira oraingo zuberoeran, beren «o» itxuraren ondarrak herri batean edo bestean arki genetazake: *gizun*(Z.), *gizon* (Sohüta, Ezpeize, Undürañe) baita «o», «ü» aldaketaren ondarrak, *bükhata* (Z.), *bokhata* (Altzai, Altzabeheiti, Zunhareta). Gaskoin grafiari ez zaio dena egoitzi behar, fonetika aldaketa handiak ere izan dira, Zuberoan, eta gertatzen dira orain ere. Zuberoerazko/y/frantses grafian ematen du.

Diptongoen sailean Egiategiren, Pettar euskaran bezala ikusten dugu garai hartan hasi zela «ia» diptongoa galtzen, zeren duela hogeitertaraino, Bela-ren *heldaitina*, Basaburuan *heldaitiana* zen, gure ondoko belaunaldian ikusi ta entzun ditugu jendeak, *jun, mendin, khanbitü* erraiten, salbu eta Urdatx-Santa Grazi herri kontserbakorrean, guk *juan, mendian, khanbiatü* esaten dugularik.

Hotskideetan, kontsonanteetan nahaspila handia dago bereziki hotskide «h» dunekin; adibidez «kh», qh, c, k eta kh idazten du: *maqhila, cuntatu, carracatu, ekistatu, khanbiatu*; «ph» beti artoski ph, idazten du (Egiategik p, ph eta pastoraletan pp.); «rh» guztiak ondo idazten ditu, *gizonerbailia, erhoua, erhocatu*, nahiz salbu eta Urdatx-Santa Grazin, Zuberoa guzian «h» bihurtu diren, lekuz aldatu ez direnenan, *erhaile/ehaile, erhua/ehua, erhia/ehia, arhana/ahana*. Baita Egiategigan ere irakurtzen den *ürhün* denetan *hürrün* bilakatu dena ere. «Th» batzu idatzia dira baina gaur *latbatü* diogu, eta ez *latatü*. «Lh» guztiak, gaurko lekuan.

Oklusibuen, leherkarien artean /k/ batzutan «c», bestetan «k», «qu» emana dago eta /g/ erdal ortografien arauera, bokalari moldatuz «gu» ta «ge». Euskarazko esea/s/, batzutan oraingo legean, «s», *asi bostguerrena, houstu, uscal-dun, adisquidetu* baita «z», *ozoki, latzuna, zoeguin* ere, nahiz ez dugun ahoskatzean zuberotarrek, bizkaitarrek egiten duten, nahasketa egiten. Frantsesean ere dagoen esea/3/ batzutan «c» *haci, ikhuci, bereci, aicecatu*, besteetan eta gehienetan «z», *aizia, utzultu, zouria, itzetu, zoñeta, zoin, gueroztik, zuzentarzuna, zamaria, zamalaria, zamalzana, guizonerbailia, gutiago «s», bustan, aspia, lausancosco* (baina zankho larriak), behin edo beste «ss», *ukhussi*, beraz lau grafia horiekin, Belak frantsesaren nahaspilak sartzen dizkigu bere idazkeran, Egiategirekin berdinxka da, garaiko aitzakiekin barkagarri zaite, baina badago Oraindik (Zuberoako gaitz ote?) gizon bat asteroko batean, gauza jakingarriak kondatzen dituenak baina harrigarriko grafia batekin eta fonetikazko sistema erabiliz.

Kontuz/j/ idaztejo frantses grafia bat hartu du «g», *gincoa, egertasuna* batzutan eta Lapurdierazkoa jarraituz «j» ere bai, *ezjaquin, jakilatu, jauntatu*. Gero azken igurzkari batekin grafia bakuna irakurtzen dugu, hots/s/ adierazteko beti «sch», *schahala, ischouri, baschera, kheschatu, schouritarzuna*.

Zoritxarrez afrikatuekin ez du jarraitzen; /c/ adierazteko, frantses, gaztelania ta euskal ortografia zaharrak aldikal ematen dizkigu, «tch» *serbutchatu, eratchtia*, «ch», *chichertu, ichasoatu, ustucha* «tx» *detxematu, utxuillatu*, «tsch», *etscheki, tschompatu*, «sch», *shipi, escheki*, hots bost grafia.

Hiru grafia darabiltza /c/ idazteko, «tz», *bihotztu; bihotzaren taucatzia, aitzurtu, debeiatzia, ehortzia, mintzoua, udurizantza*, utzi, «z» grafia zaha-

rrez, *mayusturuzia*, *berza*, *inzaurtzia* (erdizka), *arrainzun*, *zunzurcatu*, *mayaz*, «x» grafia, *axinatu*.

Gure oraingo «ts», /S/, «tx» idatzia, *azkenhatxa*, (gaskoin grafia zaharrez), baita «tz» *ontza*, *ebatzi houtza*, *latzuna*, *hautztu*, *sinhetzgorra*.

Ahosapaikari bustiduradunak, lehen eta orain Zuberoan erabiliak Belaren hiztegian zehatzki emanak dira, gaurko gisa. Bai, /ñ/ adierazteko zuberotar zahar guztien gisa eta orain ere salbu eta gorago aipatu idazlea, ñ, *morroñña*, *zamalzañ*, *señalatu*, *soñecoa*, *zoñeta*, *uñhurritu*; /l/ bustiaz bi kasu baizik ez dira biak txipigarri, *holli* (hori), *illuritu* (lilluratu); /t/ bustiduradunik ez da gertatu. Hemen ere ondo ikusten hizkuntzalariek askotan ahaztutzen dutena, hots zuberorak askotan ez dituela iparraldeko Lapurdi-Nafar legeak jarraitzen baina hegoaldekoak hala nola txipigarri den /c/ ren kasuan, betidanik irakurtzen baitugu hitzen hasieran, *tschompatu*, *txhostacatu*, baina *xhouritarzuna*, eta *schahala*.

Hauk dira gure zaldunaren grafiaz aldaketa nagusienak. Hiztegiaren mamiari begiratzuz, aski aberatsa agertzen da bere hitz zaharrekin, itxura zaharduneko hitzekin, gehienak XVIII.mendekoak, baina XVI.XVII.mendekoak ere gainera, lekuka, Nafarroa Beherako euskararen kutsua, agian, senideen, etxe-koen gandik, uste gabeen txertatu zaio. Oraingoan hiztegiarekin erkatuz, oharretan ikusiko dugu nola hitz asko jendeen erabileratik galdu diren, nahiz antzerkietan, baita bertsoetan ere gorde diren, *garaitü*, *deusereztu*, *laurdenkatü*, *taherna* eta abar. Oharretan ere ikusiko da bizpalau lekutan kopiatzearekin Larramendiren hiztegi zerrendagaz nahasketa gertatu dela.

Bostehun eta hirurogeitahamar hitz sarrera ditu hiztegiak, batzutan bizpahirur euskal hitz ematen dira frantsesaren itzulpen, gehienetan bat. Astelegunetan hirur agertzen dira, *astizkena*, *osteguna*, *ostiralia* (hegoaldeko otsezko itxurapean), hilabetetan bi *mayaz* eta *urrieta*, baina ez «ekhi», ez «argizagi» ez «izar», ez «lur»; erlijiozko hitz bat ere ez da agertzen, salbu *gincoa*; ofiziozko hitzak ez dira falta, *harrieguilia mayusturuzia*, *arotza* (aroztatu) ofiziale nagusienak, baina ez da «artzain», «laborari» hitzik ikusten, bai ordea, *itchasotarra*, *zamalzaña*. Abstraktu fama dute hitzen artean, *emaguria*, *gaizkihertia*, *askazitarzun*, *aphaltzia*, *oguentu*, *hontarzuna*, *belhaguiletu*, *zuzentarzuna*, *houtza*, *bermeatu*, *elhederrastatu*, *ohorestatu*, *aphaltu udurizantzaz*, *ezinzotucatia*, *cabibaguia*, *nahisbague*, *betziztu*, *luzetartzuna*, *aguerreraci*, *dessezagutu*, *mehachatu*, *eritarzuna*, *zorgaitza*, *artecoa*, *burkhoitu*, *becaiztu*, *chedea*, *oharquera*, *urgaitzi*, *jakineraci mendazpitu* eta abar.

Jadanik ohartu zarete, gure hiztegitileak, hitzak herrikoiki ematen dituela, alegia oraingo herri xumeari frantsesez galdera berdinak egin bagenetza, ize-nak mugatuta emanen lituzke eta frantses infinitibuaren lekuan euskarazko iraganaldi partizipioa eman letzazkete, Joan Felipe Belak egiten duen legez. Zen bezala utzi dugu, mugagabeko itxurapen zaharra asmatzeko beste zerrenda batez, garaiko zerrendaz baliatu behar baikenuke.

A

Amolir: MARDOTU
Abhorrer: HASTIATU

Abondant: HANISCO
Achever: URHENTU, ACABI
Arriver: HELTU
Avancer: AYXINATU

Amincer: MEHASTU	B
Argenter: CILHARSTATU	
Avertir: OHARTERAGUIN	Badiner: TCHOSTACATU
Agrandir: HANDITU	Blâmer: OGUENTU
Affliger: ANXIATU	Blessor: KOLPATU
Acquérir: IRAPAYICI ¹	Boiter: TSCHAINKHUTU
Accomoder: Z(U)ZENTU, APAIN-TU	Bonifier: HONTU
Affronter: AHALKETU	Bondir: JAUSTECATU
Alonger: LUZETU	Braire: MARRACATU
Abîme: LEIZIA ²	Babiller: ELHESTATU
Animal: CABALIA	Baigner: MAGNATU
Action: EGUITIA	Baiser: POTEGUIN
Accreté: LAZTARZUNA	Balayer: ECORTU ¹¹
Ail: BARACHOURIA ³	Barrer: CERRALLATU
Aile: HEGALA	Battre: JO
Arrivé: HELTZIA	Basque: USCALDUNA ¹²
Accusateur: SALHAZALIA ⁴	Baton: MAQH.ÎLA
Affabilité: EMAGURIA ⁵	Beau: EDERRA
Adversité: GAIZKIHERTIA ⁶	Bien: ONTZA ¹³
Affinité: ASKAZITARZUN ⁷	Barraque: OLHA
Agonie: AZKENHATXA ⁸	Bois, Forêt: OYHENA ¹⁴
Agrement: EGERTARZUNA ⁹	Bois à brûler: EGURRA
Abaissement: APHALTZIA	Brouillard: LANEHOUA ¹⁵
Absolument: OZOKI ¹⁰	Buisson: CAPARRONDOA
	Bonté: HONTARZUNA ¹⁶

1. Irapayci: *irabazi*-rentzat; ez da hiztegieta arkitzen ez eta iñon entzuten Zuberoan gehiago. Jusef Egiategi zuberotar filosofoak erabiltzen du bere obretan.

2. Leizia: oraingo zuberoraz *lezia* da erabiltzen halare gure etxetik hurbil dagoen «arro-lla» delakoari, *Idi leize* deritzaio. (Urdatx-Santa Grazin).

3. Barachouria: *baratxuria*, hemen «t» gabe azaltzen da.

4. Salhazalia: hemen frantses itzulpenak gaitu harritzen zeren guretzat gaur ez da *accusateur*, baina *dénonciateur*.

5. Emaguria: *affabilité*-rentzat lerroz aldatutako bizkaierazko hitza da nonbait Larramen-diren hiztegitik hartua.

6. Gaizkihertia: *adversité*, zuberoraz itxurako hitz hori Egiategik ere erabiltzen du.

7. Askazitarzun: *affinité*-rentzat, aurrekoa bezala, ongi asmatua da, baina lege esangura, eta frantses zaharraren adierazitik hurbil.

8. Azkenhatxa: *azkenhatsa* «agonie».

9. Egertasuna: *ejertasuna*

10. Osoki: *osoki*, behar luke. Egiategiren gisa «z» eta «s» nahasketa.

11. Ecortu: hitz hori ez da gehiago «balayer» bezala erabiltzen orain «erhaztatü» baitiogu, baina «berdindu» «nibeler» bezala ezagutzen zen Atarratzen. Bela-k ematen dion adierazbidea-rejin, ordea, Erronkarin erabilia zen ez du aspaldi.

12. Uscalduna: *uskalduna* oraingo itxurapean, Egiategik, garai berean itxura zaharragoa erabiltzen zuen *húskalduna*; hastapeneko «h» hori Urdatx-Santa Grazin gorde da.

13. Ontza: *ontsa* «bien», orain *untsa*. (Z.) *ontsa* (N.B.)

14. Oyhena: *oihena*, orain *oihana*; «e»rekin itxura zaharragoa dirudi zeren jende izenetan arkitzen baita Oihenart, baita leku izenetan ere Oyenne (Bearnon).

15. Lanehoua: *lanhua* (honela idatzia, frantses ortografia dakintententzat ez dadin gaizkiegi ahoskatua izan.

16. Hontarzuna: *bonté*, bondad; *biens*, bienes adierazteko beti ainizki erabiltzen da *hontarzunak*.

Blancheur: SCHOURITARZUNA	Circuler: UTXUILATU ²⁴
Botes: ZANKHO LARRIAK ¹⁷	Coiffer: MOTHOTIA ²⁵
Bouteille: FLASCOA ¹⁸	Commencer: ASI ²⁶
Beaucoup: HANITZ ¹⁹	Consumer: DEUSEREZTU ²⁷
	Courir: LASTERCATU
	Canard: ANHATIA ²⁸
C	Cantabres: USCALDUNAC ²⁹
	Cabaret: TEHERNA ³⁰
Cabrioler: AHUNZCATU ²⁰	Campagne: ELGUIA ³¹
Cacher: GORDETU	Cervelle: HUNA ³²
Cajoler: ENGANATU	Chaire: CAIDERA
Calculer: CUNTATU	Chaleur: BEROA
Casser: HAUTZTU ²¹	Chaudière: BERZA
Changer: KHANBIATU	Chemise: MANTHARRA ³³
Chanter: KHANTATU	Chaux: LATZUNA ³⁴
Charmer: BELHAGUILETU ²²	Chêne: HARITZA ³⁵
Charpenter: MAYUSTURUZIA ²³	Cheval: ZAMARIA
Choquer: DAMBATU	Cheveu: BILHOÛA

17. Zankho larriak: *zankho larrü* ezta hitztegietan arkitzen Eztirudi asmatua Zuberoan holako hitzak baititugu hala nola *eskü larrü* edo *eskü mantxoa* «guante, gant» adierazteko.

18. Flascoa: *flaskoa*, «flacon» adieraziarekin lekuka ezagutzen da baina bouteille delakoari *butilla* diogu.

19. Hanitz: orain *hanitz*.

20. Ahunzcatu: *ahünzkatü* ez da hiztegietan irakurtzen, fr. «cabrioler».

21. Hautztu; *haustü*, gureztat orain «hauts bihurtu» lizateke eta «casser», *hautse* erraiten dugu.

22. Belhagiletu: *belhagiletü*, hemen «charmer», literatura adierazi batekin hiztegietan arkitzen ez dena; adierazi herrikoiean «sorgin bihurtu», desagertu» da.

23. Mayusturuzia: *maiüstürützia*, frantsesez «charpenter» jarria izan arren, «charpenterie» izan behar du; bestalde sekulan ikusi ez dudun asimilaketa bat badago *maiastürützia* itxaroten delarik.

24. Utxuilatu: «circuler», ez da inongo hiztegietan arkitzen, baina ez ote da XVII.mende-ko Jakes Belakoaren hiztegi galdutik hartua izan?

25. Mothotia: «coiffer», ez da hiztegietan arkitzen. Egiategik ez du erabiltzen, baina «koifatü» eta «afeitatü» erdalkerien ondoan ez da gaizki asmatua, hala eginik izan bada.

26. Asi: *(h)asi*, bitxi da hastapeneko «h» horren falta, baina testu zaharretan, *i*, *hi*’ren lekuan irakurtzen da.

27. Deusereztu: «CONSUMER» baino gehiago «aniquilar, anéantir» bezala uler genezake gaur.

28. Anhatia: *âhatia*, «a» sudurotsduna adierazteko «n» tartekatzen orai *âhätia* da.

29. Uscaldunac: «cantabres» itzultzeak, Larramendi ta Garibay irakurtu dituelako probak dira, bestalde ez bageneki.

30. Teherna: Zuberoa gehiengan *taharna* hitz zakarkitua da, baina hemen Pettarreko, (Peko Ibarreko) itxura dauka.

31. Elguia: *elgia* «campagne», ez da gaizkiegi iztulia, dakigularik garai hartan ez zela edozein baserri lur mota, baina hesi gabekoa -gure elgea bezala- beste motari, hesidunari, frantsesek «bocage» diote eta euskaldun zaharrek *zerrategi*.

32. Huna: *hüna* «cervelle» bezala, gaurko zuberotarrei ez zaigu naikoa argi, *bürhün* «cervelle, cerebro», *bizkarhün* «moëlle épinière, medula espinal» ta *ezürhün* «moëlle osseuse, medula osea» bereizten baititugu.

33. Mantharra: «chemise» gureztat anderena da, gizonena «athorra».

34. Latzuna: *Latsüna*, gisua, karea «chaux».

35. Haritza: orain *haitza* eta *haitxa* ahoskatzen da, «chenê».

Cidre: EDARIA (sic)³⁶
Clairement: ARGUIZKI

D

Débarasser: DESARAGOZTU³⁷
Déchirer: PORROCATU³⁸
Défigurer: ITCHOUSTU
Déjeuner: ASKALTU
Demander: GALTHATU
Demeurer: EGONTU³⁹
Eshonorer: (OH)OREGABETU
Décimer: DETXEMATU
Détruire: BARREIATU⁴⁰
Dire: ERRAN
Deceler: SALHATU⁴¹

Déchirer violemment: URRATU, E
PORROCATU, ZATICATU
Dormir: LOATU⁴²
Dessaler: DESGATZATU, (ik.
desgacidu)⁴³
Donner: EMAN

Demoiselle: ANDERIA⁴⁴
Défaut: HOUTZA⁴⁵
Déluge: EURIZINA (cf. Jdolaz)⁴⁶
Demain: BIHAR
Dent: HORTZA
Depuis: GUEROZTIC
Derrière: GUIBELIAN
Descente: ERATCHTIA, PATA-
RRA
Diarrhée: LASTERRERIA
Dieu: GINCOA
Dispute: ANHARRA⁴⁷
Droiture: ZUZENTARZUNA
Durement: GOGO(R)ZKI⁴⁸
Douleur: MINA

Eblouir: ILLURITU⁴⁹
Ecarteler: LAURDENCATU⁵⁰
Echapper: IHEZI⁵¹
Echanger: KHANBIATU

36. Edaria: «cidre» itzulia da (zuberoeraz *sagarardû*) edaria «boisson» itzulpena behar luke.

37. Desaragoztu: *desaragoztü*, Larramendiren hiztegian hartutako zerrendatik okerbide-ratua.

38. Porrocatu: Gaur ez du «déchirer» adierazia, azken hori «*ürratü*» bailizateke; *porroka-tü* «*zatu*» da eta *porroki*: itsuski zatikatu, zauritu, desegin, adibidez: begithartea phorrokirik, etxiak, artoak phorroki.

39. Egontü: *egontü*, gaur, *egon*, frantsesez «demeurer».

40. Barreiatu: *barreiatü* «détruire» ez da beharbada frantsesetik itzulpen zuzenena, baina *desegin* gaur erabiltzen duguna *défaire* eta *détruire* baita, askok berezkuntza egiteko *phorroki* erabiltzen dute eta batzuk *xeheki*; *desthütü* ere entzuten da; *barreiatü* berriz «éparpiller, desparamar».

41. Salhatu: *salhatü*, hemen ere oker erabilia «déceler» gisa, zeren adierazi honekin *nabaitü* esaten baitugu.

42. Loatu: *loatü*, ez da hiztegieta arkitzen; gaur *lotü* diote batzuk baina itxura hortan bi adierazi izan dezake «eutsi» eta «loegin» horren inguruan «dritxoak» badira, norbaitek «lotze-ra» doala esaten badu oherakooan, besteek «zeri lotzera?» galdera egiten diote eta lehenak «loegitera doala» züzentzen, adierazien zalantza hortatik irtetzeko.

43. Desgatzatu: *desgatzatü*, ematen digu «dessaler» entzat, gaur gipuzkera zerrendan dagoen *desgacidu* ereduari, *desgazitü* diogu.

44. Anderia: «demoiselle» adierazia du zuberoeraz, hots «señorita» ez «señora».

45. Houtza: *hutsa*; Egiategiren obran bezala ez dator «ü» batekin, gaur *hütsa* diogularik, «défaut, defecto» eta «vide, vacio» ikus.

46. Eurizina: «déluge» ez da inongo hiztegieta ageri, ez bada *euri-zinez*, «pluie forte, lluvia abundante». *Idolaz*, lapurtar zerrendan, gure Zuberoako *isola* delakoari hurbilago da.

47. Anharrar: *âharra*, «an» «a» sudurotsduna adierazteko.

48. Gogo(r)zki: «durement», «r», nik gaineratua.

49. Illuritu: *lilluratu*, adierazteko. Egiategik ere erabiltzen du baina gaur galdua da.

50. Laurdencatu: *laurdenkatü*, tormenta heriotz hori pastoraletan asko aipatzen da, jen-deak izutzen zituen. Errege hiltzaileen heriotza Frantzian.

51. Ihezi: *ihesi* «échapper» «huir».

Echauffer: EKISTATU	Elu: HAITATIA ⁵⁹
Ecorcher: LAHARDECATU	Epine: ELHORRIA
Ecouter: BEHATU	
Ecrier (s'): HEYAGORATU ⁵²	
Ecurer: CHANHATU ⁵³	F
Effaroucher (s'): LOTZATU ⁵⁴	
Eloigner: URHUNTU ⁵⁵	Fâcher: KHESCHATU
Encourager: BIHOTZTU	Ferrer: BURDUNATU
Endiabler: DEBRUTU	Fleurir: LILIATU
Envoyer: IGORRI	Forger: AROZTATU
Eventer: IPERTU (cf aycetu) ⁵⁶	Fortifier: INDARTU
Etonner: HARRITU	Fossoyer: PHEZONSTATU ⁵⁹
Eau: HOURA	Foueter (sic): AZOTATU
En bas: PIAN	Fouiller: IKHERTU
Enclin: KHOY	Fouler: OSTICATU ⁶⁰
Endroit: LEKHIA	Fourmiller: UNHURITU
Enfant: HAURRA	Fermer: TINCATU ⁶¹
Enflure: HANTURA	Fixer: BARATU ⁶²
Ennui: DEBEIATZIA	Flamber: TSCHUSCARTU ⁶³
Enterrement: EHORTZIA ⁵⁷	Fléchir: BISCARTU cf makhurtu ⁶⁴
Entrailles: TRIPAC	Face: BEGUITHARTIA
Erreur: HOUTZA	Fangueux: LOHITZUA
Ecclanche: ASPIA	Farouche: BAZA ⁶⁵
Ecume: HAGUNA	Faucher: DAILLUZALIA ⁶⁶
Ecuyer: ZAMALARIA ⁵⁸	Façon: MOLDIA ⁶⁷

52. Heyagoratu: *heiagoratu* «s'écrier» «exclamar-se».

53. Chanhatu: *xâhatü*, «garbitu» adierazteko eta «a» «sudorotsduna «an» idatzia.

54. Lotzatu: *lotsatü*, «bildurtu», «s'effaroucher».

55. Urhuntu: *ürhüntü* Egiategiren lanetan ere irakurtzen da, baina gaur *hürrüntü* da, frantsesez «éloigner», gazt. «alejar».

56. Ipertu: beharbada *iphertü* ez da hiztegietan irakurtzen, baina gipuzkerazko zerrendan dagoen, *aycetu* eta *aize eman* ere erabiltzen ditugu.

57. Ehortzia: gaur, *ehortzeta* esan genezake elizkizunari eta *ehortzia* lurperatzeari, garaiko gure «tz» «zt» agertzen da, *harzten hartzen*.

58. Zamalaria: «*écuyer*» esan nahi baita zamarian zaldian dabilana, aitoren semeaz mintzo *eskutari* da, eta zaldia zaintzen, artatzen duenari zamaltzain «palfrenier», oraingo «palefrenier» «palafrenero».

59. Haitatia: *haitatü*, behar luke, «élu» «elejido».

59 bis. Phezonstatu: *phezonstatü*, gaur *phezustatü* (gast. pezon).

60. Osticatu: *osticatü*, guretzat gaur «ostikoa eman» da eta «fouler» aderaziarekin *üriskitü*, *ürixkitü*, *üxkitü* diogu.

61. Tincatu: *tinkatü*, frantses zaharreko «fermer» eta oraingo «serrer» itzuli behar da.

62. Baratu: *baratü*, gaur ez du «fixer» esan nahia, baina gaztelaniazko «parar» aditzarenak, dira hitz horren semak.

63. Tschuscartu: *txuskartü*, *txokartü* ere erabiltzen da «flamber» adierazteko, nahiz *txo-kartü* gehixago den hala nola frantsesez «griller», hori suarekin; eguzkiak errea delarik *txispiltü* diogu.

64. Bizcartu: *bizkartü* aditz hori ez da hiztegietan irakurtzen. «fléchir» adieraziarekin, *makhürtü* diote Pettarrean eta *plegarazi* Basabürü, mendialdean.

65. Baza: *basa*, gaur guretzat «sauvage» esan nahi du eta «farouche» adierazteko *ohil*, *betohil* darabilagu.

66. Dailluzalia: *daillüzalia*, orain *daillari*, *thaillari* diogu.

67. Moldia: orain *muldia*, eta *muldegaitz* «maladroit, torpe».

Foin: BELHARRA
 Fier: GOAPOA (sic) ⁶⁸
 Fol: ERHOUA
 Fourreau: USTUCHA (sic) ⁶⁹
 Froid: HOTZA
 Frond: BELARRA
 Feuille: OSTOÛA ⁷⁰
 Futur: HELDAITINA ⁷¹

G

Gagner: IRAPHAZI ⁷²
 Garantir: BERMEATU
 Garder: BEGUIRATU
 Gargariser: GARGAILLATU
 Glisser: LERRATU
 Graisser: URINTU
 Gouter: TSCHESTATU ⁷³
 Greler: CHICHERTU ⁷⁴
 Gueuser: ESKELETU ⁷⁵
 Guider: LAGUNTU
 Guinder: GORATU
 Gauchier: EZKERTU

Goudronner: PHICATU ⁷⁶
 Gazouiller: ZUNZURCATU
 Gronder: IRAZARTU ⁷⁷
 Gale: HAZTERIA
 Gant: ESCULARRIA
 Garçon: MOURROÛA ⁷⁸
 Gateau: OPHILA
 Grain ou graine: BIHIA
 Gelée: IZOTZA
 Grenouille: IGUELA
 Garde: BEGUIRATZIA
 Girouette: BELA ⁷⁹
 Goute: ITOYA, CHORTA ⁸⁰
 Grand: HANDIA
 Graisse: GANZA
 Grimasse (sic): ESKERNIA ⁸¹
 Guêpe: LOZARRA ⁸²
 Gratuitement: DOHAIN

H

Habiller: BEZTITU ⁸³
 Habiter: LEKHUTU ⁸⁴

68. Goapoa: «fier» adierazteko, gaztelaniatiko hitz hori galdu da, orain *handius* diogu.

69. Ustucha: *üstütxa*, gaztelaniatiko *estuche* hitza da, guk orain adierazi horrekin «étui» ulertzen dugu baina hemen Bela-k «fourreau» alegia «vaina» itzultzen digu.

70. Ostoüa: *ostüa* «u» sudurotsduna.

71. Heldaitina: «futur» esateko, hitz bitxia da, beharbada Belak asmatua, gaur *gerua* esan genezake eta *beldaitina* guretzat «éventuel, eventual» esan nahia luke.

72. Iraphazi: beste leku batean I.oharrean *irapaizi* aipatu dugu.

73. Tschestatu: *txeste* (txestatü gütiago erabiltzen da), dastatu, probatu.

74. Chichertu: *txitxertü*, orain *tzitzertü* edo *kaskabartü*.

75. Eskeletu: *eskeletü*, eskale bihurtu, ez da gehiago erabiltzen Egiategik eta idazle zaharrek egiten dute.

76. Phicatu: *phikatü*, guretzat *ebaki* adierazia luke eta orain *phikestatü*, *phiketü* «goudronner» lizateke, eta *phikatü* «couper».

77. Irazartu: *irazartü* jazartu hitzaren itxura zahar hori. Ez da gehiago jendentzat erabiltzen, baina «ekaitz handientzat».

78. Mourrouña: *murrüña*, mutil gazte adierazteko, Erronkarin erabiltzen zen, hamabost urterainoko mutilentzat, hitz hori zaharkitua da, Zuberoan, Belaren grafian «ü» «U» sudurotsduna da.

79. Bela: «girouette» adierazteko bere izen, bere deituraren irudiko hitza ematen digu Bela-k, (ikus gaztelaniaz *veleta*) baina gaur Zuberoan *aize-bürü* diogu holakoari.

80. Itoya, chorta: *Itoia*, *txorta*, bi hitzak ematen ditu «tanta» adierazteko, lehenbizikoa Amikuze ta beharbada Pettarrekoa zen, baina bigarrena da erabiliena Zuberoan. *Itoia* badirudi, euri tanta dela (ikus *itoitz*, *itaxur* eta beste «iz» erroarekin eginak).

81. Eskernia: Bela-k ematen dion erabilpena, Lapurdi, Nafarroa Beherakoa da, Zuberoan indar gehiago du «neke luzeak izan», Orain, zeren Oihenartek eta Egiategik «manexen» gisa darabilaten.

82. Lozarra: listorra, orain *lozerra*.

83. Beztitu: *beztitü*, gainetik behera ipintzen diren soinekoentzat hala diogu, baina, berriz, beheiti gora ezartzen diren jauntsiendako, *jauntsi* diogu (oskiak, galtzerdiak, galtzak eta abar).

84. Lekhutu: *lekhütü*, bizitu, orain «lekuz aldatu» uler genezake eta bestelan *bizitü*, *egon* diogu.

Hacher: SCHEHECATU ⁸⁵	Hameau: HER(R)I BASTERRA
Hair: GORROTATU (sic) cf herratu ⁸⁶	Hanche: ZAHEITZETZURRA ⁹³
Harranguer: ELHEDERRAS-TATU ⁸⁷	Hardi: BIHOTZTOIA
Harceler: AKHITU	Haut: GAIN(E)COA cf goratua ⁹⁴
Hâter: LEYHATU ⁸⁸	Hennissement: CINKHA
Hausser: AIRATU, ALTXATU	Hermite: BAZADONETALIA ⁹⁵
Hasarder: MENTURATU	Homicide: GUIZONERHAILIA ⁹⁶
Herisser: SAGARROITU cf latztu	Honteusement: ANHALQUE UTXIRIC ⁹⁷
Honorer: OHORESTATU	
Humilier: APHALTU	J, I
Hurler: MARRUBIATU ⁸⁹	Jaillir: JAUZI
Hurter (sic): BAMBATU	Japer: SAINGATU ⁹⁸
Habile: ENTREGU ⁹⁰	Jetter: IRIAITZI ⁹⁹
Habit: SOÑECO	Jeuner: JANGABETU ¹⁰⁰
Hableur: ELHESTARIA ⁹¹	Ignorer: EZJAQUIN
Hâche: AISKORA	Imaginer: UDURITU, AGUERTU
Haillon: ZARPA	Imiter: BESTERATU
Haleine: HATZA ⁹²	

85. Schehecatu: *xehekatü*, bai gaur ere «hacher, picar» da baina *xeheki* «despedazar, déchiqueter».

86. Gorrotatu: hor aldatzailea ala Bela bera zerrendaz galdurik? gipuzkerazko hitz hori ematen digute eta gipuzkerazkoan *herratü*, zuberuera zaharrekoa; ez du oraingo *hügüntü* ematen.

87. Elhederrastatu: *elhederrastatü*, hitz berria beharbada baina ongi egina, Zuberuerearen *moldean*.

88. Leyhatu: *leihatü*, orain *lehiatü*, literatura hizkuntzan, mintzaldi eta sermoietan erabiltzen den hitza.

89. Marrubiatsu: *marrübiatü*, orain Lapurdiko hitza «hurler, aullar» orain *marrakaz* ari, *orrua* egin diogu.

90. Entregu: *entregü*, orain Lapurdin erabiltzen da, eta hitz horren lekuan gure herrian *mulde hun, xothil, trebe*, «diestro, adroit» adieraziarekin.

91. Elhestaria: Bela-k gaitzerizpen bezala darabila, guk orain ez. *Elhestaria* «orador, orateur» da izan bezala, eta errez hitzegiten duena» adiektibu delarik. «hableur, hablador, parlanchin» adierazteko *elhekari, mihi lüze* diogu.

92. Hatza: *hatsa*, «arnasa».

93. Zehaitzezurra: *Sahetsezürra* (sic), grafia hutsa *sahetsezürra* behar luke eta bestalde ez du «hanche, cadera» esan nahi baina «côte, costilla».

94. Gain(e)coa: *gainekoa* «d'en haut» itzulia behar luke ez «haut» berdin *goratua* gipuzkerazko zerrendan.

95. Bazadonetalia: *basadonetalia*, hitz hori Larramendiren zerrendatik gurera zirristatu da.

96. Guizonerhailia: *gizonerhailia*, baina berdin *gizonerhaitia* irakur diteke, lehena «homicida», bigarrena «homicidio», frantsesak ez ditu bereizten «homicide» rengan.

97. Anhalque utxirik: *anhalke ütirik*, «lotsagarriki»; «an», «a» sudurotsduna adierazteko.

98. Saingatu: *saingatü*, orain «manexek» hala diote, Zuberuerean *orhügüz* ari.

99. Iriaitzi: «jeter», beharbada gaurko *i(r)autzi* «jeterâ bas» renverser, trastornar, derribar».

100. Jangabetu: *jangabetü*; elizakoa bada «barur» da, orain.

Importune: MUTIRITU ¹⁰²	Inquiet: EZINBARRATIA
Inciter: ACULATU	Involontairement:
Indigner (s): GAIZITU	NAHISBAGUE ¹¹²
Indiquer: ADIERAGUIN ¹⁰³	Infamer: BETZIZTU ¹¹³
Informar: ERAZTU ¹⁰⁴	
Inquiéter: GUELCAIZTU ¹⁰⁵	
Irriter: THERRITATU ¹⁰⁶	L
Jambe: SANCOA	
Jambon: OURDASPIA	Labourer: GOLDANABARTU
Jaune: HOLLIA	Laisser: UTZI
Ici: HEBEN	Lapider: HARRICATU
Jeu: JOKIA	Lasser: UNHETU ¹¹⁴
Jeudi: OSTEguna	Laver: UKHUCI ¹¹⁵
Imitation: UDURIZANTZA	Lever: GORATU
Immobile: ECINZOTUCATIA ¹⁰⁷	Licencier: EGORRI ¹¹⁶
Immortalit: HILBAGUETZIA ¹⁰⁸	Limiter: EREMATU ¹¹⁷
Imparfait: CABIBAGUIA ¹⁰⁹	Livrer: ESCURREMAN ¹¹⁸
Impetueux: SOIETUTIA ¹¹⁰	Louer: LAIDATU
Importun: GA(L)THOZARRA ¹¹¹	Lustrer: SCHAHUTU ¹¹⁹
Incredule: SINHETZGORRA	Lutter: BORROCATU

102. Mutiritu: *mütiritü*, orain müthi(r)itü zaharkitua, baina itzulpenean «importuner» behar luke ez «importune».

103. Adieraguin: *adieragin*, Larramendiren zerrendatik huna zirristatua. orain *ohartarazi* edo *señalatü* genioke.

104. Eratzu: *eraztü*, Larramendiren zerrendatik beste hitza «erakin informatu» esan nahiagaz.

105. Guelcaiztu: *gelkaitzu*, hau ere Larramendiren hitza da aldatzearen nekeaz zerrendaz irristatua.

106. Therritatu: *therritatü*, orain ez dugu «irriter, irritar» gisa erabiltzen baina «trufatu» adieraziarekin.

107. Ezinzotucatia: *ezinzotükatia*, hiztegieta irakurtzen ez dena zuberotar ereduan egi-na, orain jende batentzat erabil genezake baina gauza batentzat *ezinhigitia*, baina gehienetan *ekhöü* diogu.

108. Hilbaguetzia: *hilbagetzia*, hitz hori badirudi Larramendiren lerroan behar lukeala, baina, nahiz *bage* ez den Zuberoan erabiltzen Josef Egiategik ere, gainzuzenketaz erabiltzen du zuberorazko *gabe*-ren lekuan. Orain *ezinhiltze* genioke.

109. Cabibagua: *kabibagia*, berdin gipuzkera itxurarekin eztago bere lerroan. Gaur *bet-hegünegabe*, edo *ez perfekt*.

110. Soietutia: *soietütia*, hitz bitxi hori *soietütü* mugagabea ez dakit nundik datorren, beharbada Larramendiren gandik.

111. Ga(l)thozarra: hitz hori Egiategik ere darabila.

112. Nahisbague: *nahizbage*, orain nahizgabe diogu, baina Egiategik ere darabila nonbait Belan, nahiz Larramendiren hiztegia irakurtua.

113. Betziztu: *betziztü*, hitz hori Egiategik ere darabila, orain *beltzatü*, *beltzkeria bat egin* genioke.

114. Unhetu: *ünhetü*, Nafarroa Beherako *unhetu* dirudi, guk *eñhe* ta *eñhetü* erran genezake.

115. Ukhuci: *ühküzi*, hitz hori zaharkitua da, ta gaur *begithartatü* diogu, arpegia garbitzeari.

116. Egorri: itxurapen hortan gehiago da Lapurtarra, zuberotarra baino guk *igorri* diogu herri gehienetan.

117. Erematu: *erematü* ez da orain gehiago ezagutzen, *zedarritü*, *mügatü* baita *limitatü* ere erraiten baitugu.

118. Escurreman: *eskürreman*, orain eskietatu.

119. Schahutu: *xahütü*, orain *xahatü* ager liteke, eta adierazi horrekin *argiarazi*, *argitü*.

Lă: HOR, HAN
 Lac: OSSIRIA ¹²⁰
 Ladre: SORRHAYOA ¹²¹
 Laid: ISCHOUSSIA
 Laine: ILHIA
 Langue, idiome: MINTZOUA
 Laquay (sic): LEKAIO
 Lard: OURDAQUIA ¹²²
 Laurier: ERRAMIA
 Leger: ARHINA
 Lenteur: LUZETARZUNA
 Lessive: BUKHATA
 Levrier: SCHARNEGOA ¹²³
 Lien: BULHURRA
 Lourdement: PHEZUQUI

M

Mâcher: MAZTECATU ¹²⁴
 Maigrir: AHULTU ¹²⁵
 Maintenir: EZKIAS ESCHEKI
 Mander: MEZ(U)TU
 Manier: UNKITU ¹²⁶

Manifester: AGUERRERACI
 Manquer: HOUTZEGUIN
 Marcher: IBILI
 Marier: ISCONTU ¹²⁷
 Méconnaître: DESEZAGUTU
 Médicaments: SENDAGAILU ¹²⁸
 Mêler: NAHASI
 Menacer: MEHACHATU
 Meprise: MESPERATXHATU
 Mettre: EZARRI
 Maçon: HARRIEGUILIA ¹²⁹
 Mai: MAYAZA
 Mais: BENA
 Maladie: ERITARZUNA
 Malheur: ZORGAITZA ¹³⁰
 Marechal: AROTZA
 Marin: ITCHASOTARRA
 Matin: GOIZIAN
 Mauvais: GAISTOA
 Mediateur: ARTECOA ¹³¹
 Memoire: GOGOUA,
 OHANTZA ¹³²
 Mensonge: GUEZURRA
 Mercredi: ASTIZKENA ¹³³

120. Ossiria: *oziria*, *osiria*. Hiztegiek *osin* «lac, lago» bezala ematen badute, *osiri* ez da hiztegietan agertzen, baina Zuberoan *Ossiniry* jende izena delarik pentsatzeko da hori dela itxura zaharra eta *osiniri* beharbada nahikoa sakon den urtokia.

121. Sorrhayoa: *sorhaioa*, orain lepra galdu delarik hitz horrek ez du moral adierazia baizik alegai, «ispirtuz ustela».

122. Ourdaquia: *urdakia* ez du gaur «lard, tocino» adierazi nahi baina «charcuterie, embutidos»; *txinkor*, *txinkhor* da «lard».

123. Scharnegoa: *xarnegoa*, xarnego esaten diogu euskaldun ta erdaldun baten haurrari, baina ez hemen agertzen den legean «lévrier, lebrei» delako zakurrari, hots erbi-zakurrari. (Z.C.).

124. Maztecatu: *mastekatü* «murtxikatü».

125. Ahultu: *ahültü*, *mehe* baino gehiago *flakü* esan nahi du, orain.

126. Unkitu: *unkitü*, *hunkitü* behar luke, baina oraingo zuberoan *hunki* genioke, baina «toucher, tocar «gisa», manier» *eskukatü* da.

127. Iscontu: *izkontü*, itxura bitxi hori Egiategin ere arkitzen da *izcoitü* gisa, inon ez darabilagu gaur *ezkuntü* baitiogu.

128. Sendagailu: *sendagallü* ulertzen da baina *erremedio* erabiltzenago, baita *erremediatze* ta *sendabide* «traitement».

129. Harrieguilia: *harriegilia* «maácon, albañil» legez Etxahun Barkoxekoak ere darabila, baina orain *hargin* erabiltzenago da.

130. Zorgaitza: *zorgaitza*, «malheur, desdicha» adierazteko XVIII.mendeko idazleek erabiltzen dute eta elizako euskal liburuek baina herrian *malür* erderakada, Berrehun urte hauetan buruzagitzen ari zaio.

131. Artecoa: *artekoa*, orain *artekari* «mediador, mediateur», baita *arartekoa* «intercesor, intercesseur», adierazteko ere.

132. Ohantza «mémoire, memoria» legez, ez dugu gehiago erabiltzen orain «legamia, altxatüra «baita, baina bereizten ditugu fakultatea, bakoitzaren oroitzeko ahalmena: *orhamentxa* eta *orhamentxa* horren ekintzak *orhitzapen* «souvenir, recuerdo».

133. Astizkena: *astizkena*, oraingo grafiarekin eta astelegun bezala, osteguna eta *ostiralia* ere agertzen dira.

Métairie: BORDA ¹³⁴
 Militairement: GUERRETZE
 MOLDE

N

Nager: IGUERITU ¹³⁵
 Naître: SORTHU
 Naviguer: ICHASOATU
 Nécessiter: BEHARTU
 Neger(sic): ELHURRARI ¹³⁶
 Négliger: HANCURAGABETU ¹³⁷
 Négociier: TRAFICATU
 Nettoyer: UKHUSSI ¹³⁸
 Nicher: HABIATU
 Nier: UKHATU
 Noircir: BELZTU
 Nommer: ICENTATU
 Nouer: OROPILATU
 Nourrir: HACI
 Naif: EGIASCO ¹³⁹
 Nain: NINOA ¹⁴⁰
 Nappe de table: TANHANLLA ¹⁴¹

National: HERRITARRA
 Nebuleux: ODEYATU ¹⁴²
 Neuf: BEDERATZU
 Noble: AYTONENZEMIA
 Noye (sic): INZAURTZIA
 Nord: IPARRA
 Notre: GOURIA
 Nourisse (sic): MAÑOUA, UNHUIA
 Nu, Nue: PICARRAYA ¹⁴²
 Nuit: GAYA ¹⁴³
 Nullement: NIHOULAZERE

O

Obéir: OBEDITU ¹⁴⁴
 Obérer (s'): ZORREZ BETHE
 Obliger: BORTSCHATU
 Observer: GOGOEMAN ¹⁴⁵
 Obstiner (s): BURKHOTU ¹⁴⁶
 Occuper: LAUNEMAN ¹⁴⁷
 Offenser: BECAIZTU ¹⁴⁸
 Offir: ESKENTU,

134. Borda: guretzat ez da «métairie», baina lehenbizikoz etxe batetik urrunxka den aterbea, abereak eta belarra gordetzeko; batzutan *borda* hori etxetu liteke, baina «métairie, alqueria» delakoarentzat *etxezaĩntegi* diogu, *borda* adierazi horrekin Amikuze ta Lapurdikoa da.

135. Igueritu: *igeritu*, nafar kutsua du, *guk igeixkatü, igeriskatü* diogu.

136. Elhurrari: *elhürra ari* («neger» orduko frantses grafian).

137. Hancuragabetu: *hanküragabetü*, orain «deshinchado, desenflé» da, baina négliger adierazteko *ezaxolatü* genioke.

138. Ukhussi: *ükhüzi* beste grafia batekin gorago ikusi dugu «nettoyer, limpiar» adierazteko *xahatü* eta batzutan *garbitü* diogu.

139. Egiasco: *egiazko* «naif» garaiko frantses itzulpenarekin ematen du, orain «sineskor, sinesrrez» adierazi nahi badu aintzinan «benetako, berezko, jatorrizko «adierazi nahi zuen hizkuntza hartan.

140. Ninoa: orain *ñānoa*.

141. Tanhanlla: *tāhāilla*, bi «a» sudurotsdunekin.

142. Odeyatu: *odeiatü* «nébuleux, nebuleux, nebuloso» orain *odeizü* genioke.

142. bis. *picarraya*: *pikarraia*, hau benetako zuberotar hitza da *bilhasik* hitzaren lekua hartzen hasia zena XVIII. mendean, Egiategik biak erabili ohi zituen.

143. Gaya: *gaia* «noche, nuit».

144. Obeditu: *obeditü*, hitz hori zaharkitua da, *sinhetsi* adierazi zabalekoa darabilagu.

145. Gogoeman: hitz hori bizirik dago jendeen ahoetan, nahiz ez den lumapetan agertzen.

146. Burkhotu: *bürkhotü* orain *bürkhoitü* diogu baita *bütatü* (frantses *buté*-tik).

147. Launeman: «occuper, occuper en» *Laun* itxura bitxia ez ote da *lan* hitzaren azalpen zaharra, zeren XVIII. mendearaino «travail, trabajo» esateko zuberotar idazleek, *tribailua*, *trabailua* zioten, orain inork ez dituelarik itxurapen horiek ulertzen. Urrunago «travailler», *lanari lothü*.

148. Becaitzu: *bekaitzü, bekhaiztü* «jalouser, envier» da orain, ez «offenser, ofensar», orain *iraintü* eta *laidotü* diogu azken hortarako, baita *ofentsatü* herrikoia ere.

Offusquer: UTZUTU ¹⁴⁹
 Operer: LAUNEGUIN ¹⁵⁰
 Opiner: BETUSTCHU(sic) ¹⁵¹
 Opprimer: MATATU ¹⁵²
 Ordonner: MANERATU
 Orner: EDERTU
 Oublier: ANHATZE ¹⁵³
 Objet: CHEDEA ¹⁵⁴
 Obligation: LOCANA ¹⁵⁵
 Obscurite: ULHUNA
 Observation: OHARQUERA ¹⁵⁶
 Octobre: URRIETA
 Occurence: GOIATATZIA ¹⁵⁷
 Odeur: URRINA
 Ombre: ITZALA
 Ongle: ANHAZCULIA ¹⁵⁸
 Or: URHIA
 Ordinaire: BESTALDICOA ¹⁵⁹

Ordure: THEYUTARZUNA ¹⁶⁰
 Oreille: BEHARRIA
 Origine: SORTHIA
 Oubli: ANHASTIA ¹⁶¹

P

Pacifier: BAKATU ¹⁶
 Paître: BAZCATU
 Palissader: KHOLDETU ¹⁶³
 Palpiter: BIHOTZAREN
 TAUCATZIA ¹⁶⁴
 Parcouru: ABILI ¹⁶⁵
 Pardonner: BARCATU ¹⁶⁶
 Parer: ARBUYATU ¹⁶⁷
 Parier: JOKHATU
 Parler: MINTZATU

149. Utzutu: *ütsütü*, garaiko frantsesean «offusquer»rek hori esan nahi zuen, «gorde, itzali», oraingo frantsesean, oraingo gaztelanian bezala, «norbait mindu, minberatu» baita.

150. Launeguin: *launegin* «lanegin» gorago *launeman* legez.

151. Betustchu: *betüztü* ala *betüxtü* «opiner» «uste izatea» hitz hori ezta hiztegieta irakurtzen.

152. Matatu: *matatü* «opprimer», orain *zaphatü* genioke, frantses klasikuren adierazi horrekin eta *matatü* «domar, mater».

153. Anhatze: *âhatze*, orain *âhâte* «oublier» olvidar», «a» sudurotsdun delakoekin.

154. Chedea: *xedea* «objet» «meta» ez «objeto, objet».

155. Locana: *lokana*, Larramendiren zerendatik irristatua, Zuberoan eginbehar «obligation, obligación».

156. Oharquera: *oharkera*, hitz hau nonbait iparraldeko itxurapean Larramendiren hiztegiokoa da, baina Egiategik bere *Bigerren libüria* delakoan azpi izen bezala darabila.

157. Goatatzia: hau *gertatzia*-ren alda hutsa izan behar du «occurence»occurencia» adierazteko.

158. Anhazculia: *âhazkülia*, huts bat izan behar *azazkülia* «azazkala» adierazteko.

159. Bestaldicoa: *bestaldikoa*, Belak frantses klasikuan ematen digun «ordinaire» hori ez da inolaz ere orain ulertzen den *arrunt* baina «ohikoa, egunorokoa, bestaldikoa».

160. Theyutarzuna: *theiütarzüna*, garaiko, XVIII.mendeko frantsesaren itzulpena da ez du oraingo «ordure = basura» adierazia, hori zuberoraz *zikinkeria* baita, baina hala ere kutsatua den zerbait, nahiz norbait. (Pascal-ek dio «le coeur humain est creux et plein d'ordures»).

161. Anhastia: *âhastia*, aditz izenduak erabiltzeko ohitura dugu Zuberoan, batzuei primitibo iduri zaie eta -zio atzizkia erabiltzea dotoreago, guk -te eta -tze gureak aski ditugarik.

162. Bakatu: *bakatü*, ongi dago fonetika legeen aldetik, baina oraingo zuberotarrek *baketü* diogu, etimon ageriago batekin.

163. Kholdetu: *kholdetü*, orain *kholdetü*, *palangatü*, «oholesitu».

164. Bihotzaren taucatzia: *bihotzaren taukatzia*, taukatze=talkatze baita, hitz horren iturapena ez dago hiztegieta, oraingo zuberotarrek *bihotzaren panpatzia* liokete.

165. Abili: ibili edo ebili-ren lekuan, azalpen bitxia.

166. Barcatu: *barkatü*, beharbada *barkhatü* Egiategigan bezala; orain *pharkatü* diogu «h» ren leku aldaketaz.

167. Arbuyatu: *arbuyatü*; «parer» itzulia da, garaiko frantsesean «gerizatu, urgaitzu, axol-bean ezarri», hutsa izan behar du.

168. Erdiscatu, erthailtu: *erdizkatü*, *erthailtü* «partager» itzulia Erthailtü Egiategik hainitz erabiltzen du; ez du zatikatu esan nahi, *banatzeko* ez baita beti *zaitu* beharrik. Ez da hiztegieta agertzen. *Erdizkatü*, ordea, erditik banatzea da.

Paraître: AGUERTU
 Partager: ERDISCATU,
 ERTHAILTU ¹⁶⁸
 Partir: JOUAN
 Passer: IGARAN
 Pecher: ARRAINZUN ¹⁶⁹
 Pain de bled de Turquie: ART-
 HOUA, MESTURA ¹⁷⁰
 Pair: BARDIN
 Palfrenier: ZAMALZAÑA ¹⁷¹
 Paleur: HILITSCHOURIA ¹⁷²
 Panneau: SCHEDERA ¹⁷³
 Panier: ZARIA
 Paresseux: AUHERRA,
 HERABIA ¹⁷⁴
 Parfois: ZOBAILTALDIS ¹⁷⁵
 Particulier: BACOITZA
 Pele: THIPILTIA, PELATU ¹⁷⁶
 Perche: HAGA
 Peril: RISKIA (sic) ¹⁷⁷

Pesant: PHESIA
 Pieusement: BIHOTZBERARO ¹⁷⁸

Q

Quadrupler: LAURCATU
 Qualifier: JAUNTATU ¹⁷⁹
 Quereler (sic):
 ARRENCURATU ¹⁸⁰
 Quitter: UTZI ¹⁸¹
 Quadrigenaire: BERROGEIOUR-
 TECOA
 Quadrupede: LAURSANCOSCOA
 Quand: NOUIZ
 Quart: LAURDENA ¹⁸²
 Quasi: HULLEN ¹⁸³
 Quatorze: HAMALAU
 Quel: ZOIN
 Quelqu'un: NOURBAIT

169. Arrainzun: *arraintzün* eztu «pêcher, pescar» esan nahi baina «estar pescando, en train de pêcher» arrantzan ari. «Pescar» bi gisatara itzul diteke, *arrantzukatü* (arraña arrantzükatü) eta *arrantzün ebili* (norbait arrantzün ibili).

170. Arthoua, mestura: *arthua*, *mestüra*; frantses itzulpenaz esan nahi du «Turkiako gariak» egindako ogia, ta *arthua* ogi gisa hartzen du (ikus grekoz, artoz); *mestüra* berriz ez da *taloa* baina artoirinarekin egiten den oreka, urean egosten dena, eta ez suaren aurrean txigortzen dena.

171. Zamalzañ: *zamalzañ*, oraingo grafiarekin «palafrenero».

172. Hilitschouria: *hilitxuria*, orain *hilitxüria* genioke baina hil itxura duen batentzat, frantsesean «pâleur» delarik *zurphailtarzüna* behar luke.

173. Schedera: *xedera*, XVIII.mendeko frantses «panneau» adierazteko alegia hegaztiak arapatzeko hedatzen diren oihal, sare ta holakoak izendatzeko erabilia. Orain gehiago frantsez «tablero» ezi ez «red».

174. Auherra, herabia: «paresseux» itzuliak izan arren ez dira izenkide Lehenbizikoa «alperra, nagia» da, bigarrena «gogogabekoa».

175. Zonbaitaldis: *zonbaitaldiz* «batzutan».

176. Thipiltia, pelatu: *thipiltia*, *pelatü* (pelatia?) «pele» (peler?) hitzaren itzulpena; oraingo zubereroan itzulpen gehiago lituzke; fruta ta baratzeak *xu(r)itü*, abereak *lahardeki* mendiak, basoak: *thipiltü*, *gorritü*; *pelatü* fruta batzuentzat hala nola liraña, sagarra, mertxika.

177. Riskia: *arriskia* (hamazazpigarren mendeko grafia horrek dudarazten du ez ote duen Joan Felipe Belakoak, Jakes Belakoaren hiztegia irakurtu eta apur bat beretzat aldatu).

178. Bihotzberaro: gipuzkerazko hitz hori gure zerrendara lerratu da, zirristaz.

179. Jauntatu: *jauntatü* «qualifier»; XVII.mendeko zubereroan badirudi (ikus Oihenart, «gizartean goratu» esan nahi zuela) jaun bihurtzea zela, eta hain zuzen hau da XVIII.mendeko frantsesetik Bela-k itzultzen duena ez batere oraingo adierazi orokorrarekin.

180. Arrencuratu: *arrenküratu*, «quereler» grafiko frantsesaren itzulpena da eta orduan hain zuzen «eztabaida bilatu» «arreguratu» esan nahi zuen, orain gatzelaniaz bezala, «norbaiten alde kezkatu» da.

181. Utzi: *ützi*; quitar adierazteko, *norbait utzi* behar luke. Zubereroan gainera XVIII.mendeko testuetan, baita Urdatx-Santa Graziko euskaran *eitzi* erabiltzen da, beharbada *eutzi* zaharrago batetik.

182. Laurdena: oraingo Zubereroan, literatura eüskaran erabiltzen da baita elizetan ikastoletan, bearnesetik geroztik hartutako «kart, quart» aren lekuan ere.

183. Hullen: *hüllan*. Egiategik ere berdin erabiltzen du, Pettarreko itxurapean Basabürüan *hüllan* delarik.

Quelquechose: CERBAIT
 Quenouille a filer: CUNHULLA ¹⁸⁴
 Querelle: BILHACA ¹⁸⁵
 Question, demande: GALTHOUA
 Queue: BUSTAN
 Qui (pronrelat): ZOÑETA
 Qui que ce soit: NOUR NAHIDEN
 Quint, 5 ème partie: BOSTGUE-
 RRENA
 Quoi? (particule): CER?
 Quotidien: EGUNOROSCOA

R

Racheter: ARRAEROZI ¹⁸⁶
 Racler: CARRACATU
 Racornir: GOGORTU
 Racourcir: LLABURTU
 Racrocher: LOTHU
 Radoubert: HOBETU
 Radoucir: EZTITU
 Raffermir: GOGORTU
 Rafiner: BERECE ¹⁸⁷
 Rafrachir: HOTZTU
 Railler: TRUFATU

Rallier: BILDU
 Ralonger: LUZATU
 Rallumer: SUZTATU, PHISTU ¹⁸⁸
 Ramaigrir (sic): AHULTU
 Ramasser: METHATU ¹⁸⁹
 Ramoindrir: SCHIPITU
 Ramoiter: BUSTITU ¹⁹⁰
 Ramolir: MARDOTU
 Rancier: KHARRAZITU ¹⁹¹
 Ranger: HERROCATU
 Raviver: BICIERACY
 Rapetasser: BETHACHATU
 Rapprocher (sic): HULLENTU ¹⁹²
 Raser: MOUZTU
 Ravir: SENTHAGAILLATU ¹⁹³
 Reboucher: THAPATU
 Rebrouser: GUIBELTU
 Rebuter: EZKOITU ¹⁹⁴
 Reclouer: ITZETU
 Recommander: GOMENDATU
 Reconcilier: ADISQUIDETU
 Recouvrer: KHUPERATU
 Récréer: ALAGUERATU
 Réfléchir: OHARTU
 Regaler: APAYRUTU,
 EZTEYATU ¹⁹⁵

184. Cunhulla: *künhüllä* (frantses quenouille-ren antza du; ez da da gehiago erabiltzen hurbilena hitz hortarik *kürhüllä*, bena erabiliena *mürkhüllä*, *mürkhüllä*).

185. Bilhaca: *bilhaka*; hemen «querelle» hitzaren bigarren adierazia frantsesez, orain *bilhaxka* esatenago da.

186. Arraerozi: *arraerosi*, berriro erosi (arra-aurrizkia Zuberoan asko erabilia).

187. Bereci: *berezi* «raffiner, refinar», orain gauza batengatik *iratzi*, *fiagotü* genioke ta jende batentzat *fitü*, *xothiltü*.

188. *Suztatu*, *phistu*: *süztatü*, *phiztü* «rallumer» entzat ez da itzulpen egokiena; «rallumer» *arraphiztü*, *berriz phiztü* lizateke, eta *phiztü* «allumer»; *süztatü* gehiago da erreketak, errakin handia piztu.

189. Methatu: *methatü* «ramasser» en itzulpena da, baina guk «*bildü* esaten dugu hortarako eta *metatu* «empiler, entasser» da.

190. Bustitu: *büstitü*, frantsesez «ramoiter» ez da gehiago erabiltzen, euskaraz behar zukean, *arrabustitü*, *berriz bustitü* baina *-itü* batekin bukatzen diren aditzek beren atzizkia oraingo zuberoteran galdu dute eta ez da esaten *bustitü* baina *busti* soilik.

191. Kharrazitu: *kharrazitü*, orain *kharratü* «gardingatu».

192. Hüllentu: *hüllentü* «rapprocher» «aproximarse», Pettarreko itxurapean (J.F. Bela, mauletarra da) Egiategik berdin.

193. Senthagaillatu: *senthagaillatü* «ravir» «encantar». Egiategik senthagailla «encanto» «milagro» «miracle» legean erabiltzen du.

194. Ezkoitu: *ezkoitü*, *ezkhoitü* «rebuter, disgustar»; ez da hiztegiaren irakurtzen baina zuberotarrentzat argi dago, *khoi* «gustatu» baita.

195. Apayrutu, ezteyatu: *apairütü*, *ezteiatü*, hemen Belak itzultzen duena, XVIII.mende-ko frantsesaren «régaler» aditza da, garaian apari on bat eskaini baldin bazen, orain «ondo jan» esan nahia du; halere guretzat edozein janaldi, *apairü*, *apaidü* da, eta *ezteiak*, ezkontzako janaldia, afariari «*aiba(r)*» diogularik.

S

Sacré: CONSAGRATU
 Saigner: SANGRATU
 Saillir: CAMPORATU, ELKHI
 Saisir: ATZAMAN, HARTU
 Sangler: CINGLATU
 Saouler: AZETU, BETHETU
 Saper: ZAINETARIC AITZURTU
 Satisfaire (?): BEGUIRATU ¹⁹⁶
 Satyriser: MIHIZLARDECATU ¹⁹⁷
 Savonner: SABHOATU ¹⁹⁸
 Sauter: JAUSY
 Se souvenir: ORHITU,
 OHARTU ¹⁹⁹
 Secourir: URGAITZI ²⁰⁰

Semer: EREIN
 Separer: BEREIZTU, BERECI
 Serrer: SARRATU ²⁰¹
 Servir: SEREBUTCHATU
 Sener: DEZNEZTU cf destitiatu ²⁰²
 Sifler (sic): HUSTUTU, PUSTUS
 ARI ²⁰³
 Signaler: SEÑALATU
 Signifier: JAKINERACI
 Solemniser: BEGUIRATU ²⁰⁴
 Soliciter: ARDURA GALTHATU
 Sortir: ELKHI, CAMPORATU
 Soffler: AICEZTATU,
 BOUHATU ²⁰⁵
 Souffrir: PAIRATU ²⁰⁶
 Souhaiter: DESEATU

196. Beguiratu: *begiratu*, begi(r)atü orain, Bela-k «satisfaire» itzultzeko darabila, guretzat ordea hitz horrek beste esangura du, alegia «conserver, conserver». «Satisfaire» aditzak, adieraz-penak adierazi asko ditu bestalde I.gogo *bete 2 atsegin eman, poztu 3 ordaritu, ordaindu*; bestalde aurizki batekin «satisfaire a» *egiteko bat egin* adierazten du eta errefleksibuekin «se satisfaire» bere gorputzeko *beharruneak egin*.

197. Mihizlardecatu: *mihizlardekatü* «satyriser» entzat; zuberotarrei hainbeste gustatzen zaizkigun metafora pollitak, berriz ere, Belak huna ekartzen dizkigu (ikerketa baten gaia balizateke holako metaforekin hala nola *aize'ebakitzea*, paseatü aditzaren biritxi bitxia). Bizirik dago *lardekatü* askotan, *jorratü* baino gogorrago.

198. Sabhoatu: *sabhoatü*, itxura hortan ezdago hiztegieta, gaur *sabunatu* diogu.

199. Orhitu, ohartu: *orhitü*, *ohartü* «se souvenir»; adibide hunein ikusten da XVIII.men-dean jadanik gure herritarrek *oroitu* eta *ohartu* aditzak nahasten zituztela, beharbada *ohartü*-ren partida bat, izenkide bat, *erremarki* sartu baita, eta agian bi aditzek elkarrenarteko semak dituztelako.

200. Urgaitzi: *ürgaitzi* «secourir»; aditz hau Tartas, Belapeyre Oihenartek, Egiategik, Maister-ek zerabilaten *aiutatü* X.garren mendeko aditz ospetsuarekin batean, badirudi *urgaitzi*, moral eta adimenezko laguntza dela ta *aiutatü* -gan diru ta eskulaguntza.

201. Zarratü: *zarratü* klasikuen frantsesa itzuliz «serrer» aditzarentzat ematen digu, baina orduan «serrer»k *betsi* eta hain zuzen *zerratu* esan nahi zuen, eta orain XX.mendean behintzat *trinkatu*, *hestutu* adieraztenago du. *Zarratü* itxura bitxia da Zuberoan *zerratü* erraiten baitugu gaur baina bizkaiera tankerako *zarratu* hori lapurdiko *zarrailla* ta *zarrailu* hitzen herroan ikusten dugu.

202. Dezneztu: *desneztü*, frantsesetik galdu den aditz baten itzultzeko darabila, hots «sener»; esnea galerazi adierazteko lapurtar zerrendan, guretzat hain argi ez den aditza agertzen da *destitiatü* edo *destitiatu*, ez bata ez bestea ez ditut hiztegi arruntetan irakurtu.

203. Hustutu, pustus ari: *hüstütü*, *pustüz ari* «siffler» adierazteko ez dira ez bata ez bestea gehiago entzuten eta bigarren ez da inon irakurtzen nahiz gertakizun liteken (ikus uzker-puzker oker-poker) oraingo hizketa «silbar, siffler» *hüxtu egin* esaten zaio ekintza laburrari eta norbaiten txistuz ahaidea, soinu ematen duenak luzaro «silbotear, siffloter» *hüxtulatü* erabiltzen da.

204. Beguiratu: *begiratu* «solemniser» itzultzeko bitxi da, gaur *ospatü* diogu antzerkietan, mintzaldietan eta herriak *handizki ohoratü*, *besta handia egin*.

205. Aiceztatu, bouhatu: *aizeztatü*, *buhatü* «soffler», gaur «souffler» naski lehenbizikoa, makinaren, aizearen arnasaz mintzo ta bigarrena gizahats edo arnasaz ihardutean; gainera bigarrena bearnesetikako mailegu zuzena da, naski beste esaldia badugu *bütz egin*, putz egin, baina laburzki eta indar gutiekin hatsbeherapena, arnas botatzea da.

206. Pairatu: *pairatü* «souffrir, padecer, doler», orain hitz hori, XVIII.mendean Zuberoan hain erabilia, galduta da, baina gogoko pairamententzat *patitü* eta gorputzekoentzat *sofritü* erabiltzen dira.

Soulager: URGAITZI ²⁰⁷
Soumettre: MENDAZPITU ²⁰⁸
Souper: AIHALTU

T

Tabler: MAHAINTU
Tacher: THONATU
Tailler: EBAQUI, MOUSTU
Taire: ICHILTU
Talonner: AZTALCATU, JARRAI-KI
Tamiser: CETHABATU ²⁰⁹
Tarder: BERANTU
Tarir: MENDRATU, AGORTU ²¹⁰
Tater: HOUNKITU, IRIBILI ²¹¹
Teindre: GAMBUSITU, TINTATU
Temoigner: JAKILATU ²¹²
Temperer: BELTZKATU ²¹³
Tenailler: TRUQUEIATU ²¹⁴

Tenir: ETSCHEKI
Tomber: ERORI
Tondre: MOUSCHTU
Tonner: DURUNDATU,
EHORZIRITU ²¹⁵
Tordre: BUHURTU
Tourner: UTZULTU
Tousser: EZTULUKHEN
Tracasser: NAHASI NAHASTU
Traîner: THERRESTATU
Traîter: HITZEGUIN
Transférer: EROAN ²¹⁶
Travailler: LANARI LOTHU
Trembler: IKHARATU

V

Vaciler: TSCHOMPATU
Vaguer: ERHOCATU
Vaincre: GARAINTU ²¹⁷

207. Urgaitzi: *ürgaitzi*, hemen «soulager»en itzulpen ematen digu. Moral adieraziarekin halaxe erabiltzen da, gorago ikusi dugun beste adieraziarekin batean, baina karga batez eta eskuz laguntzen denean *arhintü*, a(r)hintü diogu.

208. Mendazpitu: *mendazpitü* «soumettre» Larramendiren zerrendatik hunat herratua, gaur *esküpilatü* edo *esküpekotü* genioke.

209. Cethabatu: *zethabatü* «tamiser» emaiten digu, baina gaur behintzat eta beharbada orduan ere baserritarren artean bereizketak egiten dira, *ba(r)hatü* edozein moduz irina iratzi da baina *zethatxatü* «garia baheztatu, eraldi» «galbahetu» eta *zethabatü* «artoa zetabetu».

210. Mendratu, agortu: *mendratü*, *agortü*, frantses «tarir» «agotarse» itzultzeko; gure ustez lehena frantsesak metaforz «tarir» dionenean erabiltzeko, *indarrak mendratü*, eta jatorrizko adieraziz «tarir» *üthürria agortü* adibidez.

211. Hounkitu, iribili: *hunkitü*, *iribili* «tâter», guretzat orain *hunkitü hunki* «tocar, toucher» da eta *haztatü* «tentar, tâter»; *iribili* ez da hiztegieta irakurtzen baina, heltubada, beharbada, *irabili* da, huts batekin itxuraldatua; orduan nere ustez «manosear, tripoter» adierazi hurbilarekin dator, nahiz *eskükatü* diogun hortarako.

212. Jakilatu: *jakilatü*, euskal fonetikaren legeak jarraitzen ditu hor, baina gaur etimonaren argiagatik edo? *jakiletü* diogu. *Jakile* hitza herrikoia da, batere garbizalekeriarik gabe, batzu *testigo*-ra iritxi badira gu, hortan, ez gara *temoin* edo *temuein*-eraino heldu.

213. Belzkatu: *belzkatü* «tempérer»; garai hartan esan nahi zuen neurri onetan nahastu, edo zuberoeraz geniokeen bezala *doi botitü*; *belzkatü* ez dut hiztegieta irakurtu; agian, Larramendirengadik dator.

214. Truqueiatu: *trükeiatü* «tenailler», orain *trükesatü* genioke «atenacear» adierazteko, baina gaur frantsesak hainbeste erabiltzen dituen hitz horren gaineko metaforak ez ditugu hitzez hitz itzultzen «tenaillé par la faim» «goseak tinkatürrik» «tenaillé par la peur» *lotse(r)iak janik*. eta abar.

215. Durundatu, ehorziritu *düründatü*, *ehortziritü*. Lehena Zuberoa guztian darabilagu (*düründa*=trumoi), bigarrena Ligin, Urdatx-Santa Grazin *ihurtzi(r)i* itxurapean, baina hirugarren bat ere badago, *ühülgü* urruneko trumoiak esaten dena.

216. Eroan: «transférer» adieraziagaz, oso aldaturik zaharkitua da *i(r) oan*, *i(r) uan* «jendea lekuz aldatu» (cf *e(r) aman*, *i(r) aman* gauza lekuz aldatu), orain eroan-entzat *lekhüz khanbiatü* genioke; bi aditzen arteko hirugarrena badago Zuberoan eroaman izango zena eta orain *i(r) u-man* entzuten dena.

217. Garaintu: *garaintü* ala *garâitü* «vaincre»; aditz hori gerlaz hitzegitean darabilagu Zuberoan, baina bi jendeen arteko esku nahiz gogo borrokaz mintzo *goithü*, aditza erabiltzena da.

Vanter: AICECATU ²¹⁸	User (déchirer): HIGATU ²²⁸
Vaquer: LAAN BAGUETU ²¹⁹	Vider: HOUSTU
Vautrer: LOCARAN SARTHU ²²⁰	Vache: BEHIA
Vendanger: MENDAINTU	Vaiselle(sic): BASCHERA ²²⁹
Venger: MENDECATU	Vallée: MENDIARTIA ²³⁰
Venir: GIN	Veau: SCHAHALA
Vérifier: ARGUIARTZI ²²¹	Vendredi: OSTIRALIA
Verser: ISCHOURI	Veneur: IHINZTARIA ²³¹
Vieillir: SAHARTU	Venin: PHOZOUA ²³²
Viser: KHENATU	Vent: AIZIA
Unir: LATATU, JUNTATU	Ventre: SABELA
Voyager: BIDAGATU ²²²	Ver: HARRA
Voir: ZOEGUIN, IKHOUZI ²²³	Vers (adv.: NORAT, HARAT, HORACHE.
Voisiner: AIZOTU, ANISKIDETU (sic) ²²⁴	Version: UTZULIA
Voiturier: KHARRIATU ²²⁵	Vetille: HAURQUERIA
Voler: EBATZI, OHOINCATU	Vice: GAIZTOTARZUNA
Voler en l'air: HEGALTATU	Vigoureux: BORTITZA, ASCARRA
Vouloir: NAHI	Vil: APHALA, NEKIA
User par habitude: ACOSTUMATU ²²⁷	Vilain: ZUQUINA, TACANOA ²³³

218. Aicecatu: *aizekatü* «vanter» «alabar» hitzaren itzulpena izan arren «venter, ventear» ulergarriago da, orain azken adierazia *aize* egin, *aizetü* eman genezake eta goretsi adierazteko, *laidatü*, *bantatü*.

219. Laan baguetu: *lanbagetü*; hemen ez da *laun*, baina *laan* agertzen «vaquer», hots «lanleku bat ez hartua» izatea adierazteko.

220. Locaren sarthu: *lokaran sarthü*, erranaldi hau ez da gehiago ezagutzen Zuberoran, baina Lapurdierazko *lohikaran sartu* -ren entzaeta egitea badu; orain abere batentzat *ihauzkatü*, *ihalozkatü* genioke baita jendengatik *irailzkatü*, *piazgainkatü*.

221. Arguiartzi: *argiartzi* «vérifier» beharbada *argiarazi*, orain *egiaztatü* genioke.

222. Bidagatu: *bidajatü* zuberorazko /j/, Belak -g - idazten du.

223. Zoeguini, ikhouzi: *soegin*, *ikhusi*, biak «voir» itzultzen dituelarik naski lehenak «begiratu» ta bigarrenak «ikusi» esan nahi dute.

224. Aizotu, aniskidetu: *aizotü*, *aniskidetü*, biak «voisiner» itzuliak nahiz lehenak «auzoe-kin harremanak izan» eta bigarrenak «adiskidetu» erran nahi duten. Gainera *aniskide* ez tirudi hutsa nahiz Bela den lekuko bakarra, Senekaren gogamenez egin itzulpenean agertzen baita, ez ote da beti euskal idazleek izan dugun etimon asmatzeko joerak hitzaren aldatzera bultzatua hala gertatu?

225. Kharriatu: *kharriatü*, karraiatu esateko, gaur *karreiatu*, *kharreatü* erabiltzen dugu eta frantsesez «voiturier» ordez «transporter» esaten da.

226. Ebatzi, ohoincatu: *ebatsi*, *ohoinkatü*; orain norbait, zerbait *ebatsi* diogu eta etxea *arrobotü* (frantsesez «voler» eta «cambrioler» bereizten den bezala).

227. Acostumatu: *akostumatü* «user par habitude»; orain gure euskalkian *kostumatü* diogu.

228. Higatu: *higatü* «user» «déchirer» dio Belak, arropa ta gauzen erabiltzeaz hondatzea.

229. Baschera: *baxera* «vaiselle» orain «vaisselle»- «vajilla» adierazteko, orain gure euskalkian «ontziak» da erabiliena.

230. Mendiartia: hitz hori ulertu arren *ibar* esaten diogu «vallée, valle» delakoari.

231. Ihinzartia: *ihiztaria*, «in» bat «i» sudurotsduna adierazteko. Orain *ihizlari* diogu eta frantsesek «chasseur», «veneur», baino gehiago erabiltzen.

232. Phozoia: *phozüa*, hemen «u» sudurotsduna adierazteko «ü» idazten du J.F. Bela-k.

233. Zuquina, tacanoa: *zukina takanoa* «vilain» «vilano, vil» «avaro» adierazteko erabiliak ez ditut hiztegieta irakurtu, bigarrena gaztelaniazko *tacaño* da, eta lehenak Egiategik idazten duen *zekeina* hitzarekin zerbait ikusteko du.

Vigne: AYHENA ²³⁴
 Vin: MAHATZANOA ²³⁵
 Vingt: HOGUEY
 Violon: ARRABITA ²³⁶
 Visionnaire: LOZORRA ²³⁷

Vide: HOUSTU
 Votre: ZOURIA, ZOURENA ²³⁸
 Ypreau, arbre: ZUNHARRA ²³⁹
 Yver (hiver): NEGUIA
 Yvrogne: MOSCORRA.

UN VOCABULARIO SULETINO DEL SIGLO XVIII

Este vocabulario inédito se encuentra dentro del voluminoso tomo 2055 *Histoire des Basques* de la Bibliothèque Nationale de Paris, se escribió antes del año 1870 y quizá contiene elementos que el autor, el caballero y coronel Joan Felipe de Bela, recogió del manuscrito perdido del abogado Jakes de Bela (1587-1667). Se describen las grafías del manuscrito que presentan irregularidades, que se deben probablemente a las fuentes que utilizó el caballero para realizarlo. Este vocabulario tiene muchos puntos comunes con el utilizado por los escritores suletinos de la época, pero se observa una influencia del *Dictionario Trilingüe* del Padre Larramendi S.J. que conoció.

Fuera de unas cuantas equivocaciones al copiar el vocabulario no contiene terminachos, refleja el vocabulario de la época dentro de la escueta colección de 570 palabras. Se conoce que el caballero tenía el uso del euskara hablado, pero también era capaz de escribirlo porque tradujo al euskara suletino parte de los pensamientos de Séneca. Con la relativa fidelidad de la grafía se da cuenta tanto en el francés, como en el euskara que tuvo lugar una evolución que a veces se nos olvida. Aquí se publica un sondeo de la obra, puesto que está realizado el original en ocho idiomas y tres dialectos vascos y viene precedido de una apología con ejemplos gramaticales en el estilo de Larramendi.

Un vocabulaire souletin du XVIIIème siècle

Ce vocabulaire inédit se trouve dans le tome 2055 de «Histoire des Basques» de la Bibliothèque Nationale à Paris; écrit avant 1780 il contient sans doute des éléments que l'auteur, le chevalier et colonel Jeanne Philippe de Bela, put recueillir du manuscrit perdu de l'avocat Jacques de Bela (1587-1667). Les

234. Ayhena: *aihena* «vigne»; oraingo zuberoteran «cepa, cep» «mahatsondo» da eta «vigne, viña» *miñaberje* (bearn. binhe berye).

235. Mahatzanoa: *mahatsanoa* «vin»; hemen erranaira, esaera zahar bat (mahatsanoa ≠ sagaranoa); bitxiena *anoa* da Nafarroako kutsuz, zuberoteraz aspaldidanik *ardüa* baita, beharbadeta hor ez baita manex kutsu bakarra, nonbait Bela-ren etxean, emaztearen edo amaren aldetik Nafarroako euskara erabiltzen zen.

236. Arrabita: «violon»; garai hartan txirularekin arrabita antzerki (pastorala), astolaster, dantza jauzi ta jaietako soinuak ziren.

237. Lozorra: hiztegieta *lozorro* «vision» gisa irakur ditekete, baina *lozorra* «visionnaire» ez dut behinere ikusi. Larramendiren hiztegitik? Larramendirekin eduki elkar hizketa baten ondoren bildua? Baitakigu Bela Larramendiren ikustera ibili zela, eta euskaraz ezin ulertuz, latinez hitzegin zutela.

238. Zouria, zourena: *zuria, zurena*, «votre»; orain *zu(r)ia* ta *ziena* diogu.

239. Zunharra: «ypreau, arbre» alegia zuhaitz motaren itzulpena guretzat latinezko *Ulmus* da, harentzat *Populus*. Baina berdin Meursault saratsa, Haltz ostozabala zitekean, frantsesez.

graphies du manuscrit présentent des irrégularités qui sont dues, probablement, aux sources utilisées par le chevalier pour le réaliser. Ce vocabulaire de 570 mots rappelle celui utilisé par les auteurs souletins de l'époque, les colonnes voisines ou figurent le «guipuzcoan de Larramendi» ont parfois chevauché la colonne souletine. Nous ne publions pas l'apologie grammaticale qui précède le vocabulaire, ce sondage souletin français écarte, pour l'instant, les sept autres langues et les deux autres dialectes, qui figurent dans le manuscrit.